268/1987 DEKRETUA, Uztailaren 21eko. Kultura eta Turismo-Saileko Gazteria eta Kiroletarako Sailburuordea izendatuz. 3560

269/1987 DEKRETUA, Uztailaren 21eko. Kultura eta Turismo-Saileko Turismorako Artezkaria izendatuz. 3561

DECRETO 268/1987 de 21 de Julio, por el que se nombra al Viceconsejero de Juventud y Deportes del Departamento de Cultura y Turismo. 3560

DECRETO 269/1987 de 21 de Julio, por el que se nombra al Director de Turismo del Departamento de Cultura y Turismo. 3561

# Bestelako Agintza eta Erabakiak
# Otras Disposiciones y Acuerdos

OSASUNKETA ETA KONTSUMO-SAILA

ERABAKIA, Osasunketa eta Kontsumo Sailaren 1987.eko Ekainaren 15ekoa, «Cemexa» izeneko mediku-azterriak egiteko Tegi bat sortzeari, administraziozko eta sanitatezko baimena ematen diona. 3561

ERABAKIA, Osasunketa eta Kontsumo Sailaren 1987.eko Ekainaren 30koa, Azkoitian (Gipuzkoa) dagoen «Centro Psicotécnico y Médico para conductores S.L.» izeneko mediku-azterriak egiteko Tegi bat sortzeari, administraziozko eta sanitatezko baimena ematen diona. 3562

ERABAKIA, Osasunketa eta Kontsumo Sailaren 1987.eko Uztailaren 15ekoa, «Colegio Oficial de Médicos da Alava-Llodio» izeneko gidatzeko eta armentzako karnetarako mediku-azterriak egiteko Tegi bat ireki eta jarduneán jartzeari, administraziozko eta sanitatezko baimena ematen diona. 3562

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

RESOLUCION de 15 de Junio de 1987, del Departamento de Sanidad y Consumo por la que se concede autorización administrativo-sanitaria de creación del Centro de Reconocimientos Médicos «Cemexa». 3561

RESOLUCION de 30 de Junio de 1987 del Departamento de Sanidad y Consumo por la que se concede autorización adminitrativo-sanitaria de creación de un centro de reconocimientos médicos al «Centro Psicotécnico y Médico para conductores S.L.» en la localidad de Azkoitia (Guipúzcoa). 3562

RESOLUCION de 15 de Julio de 1987 del Departamento de Sanidad y Consumo por la que se concede autorización administrativo-sanitaria para la apertura y funcionamiento al centro de reconocimientos médicos para carnets de conducir y armas. «Colegio Oficial de Médicos de Alava-Llodio» (Araba-Alava). 3562

# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

**KULTURA ETA TURISMO SAILA**

**1740**

266/1987 DEKRETUA, Uztailaren 14ekoa, Kultura eta Turismo Sailaren egitura organikoa finkatzen duena.

Urtarrilaren 27ko 5/1985 Dekretuz Kultura eta Turismo Saila sortu ondoren eta bere egitekoak eta bere iharduketa-eremuak Martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuz mugatu ondoren, Euskal Herriko Autonomia Estatutoko 10.2. artikulua erabiliz, bere arau organiko eta funtzionalak ematea beharrezko gertatzen da.

Hori horrela, Ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 26.2. artikuluarekin bat, Kultura eta Turismo Sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzako Lehendakaritzaren onarpenez eta 1987.eko Uztailaren 14eko bileran aztertu eta onartu ondoren zera,

**DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO**

**1740**

DECRETO 266/1987 de 14 de Julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura y Turismo.

Creado el Departamento de Cultura y Turismo por Decreto 5/1985, de 27 de Enero y determinadas sus funciones y áreas de actuación por Decreto 27/1987, de 11 de Marzo, se hace necesario dictar las normas orgánicas y funcionales del mismo, en aplicación del artículo 10.2º del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

En su virtud y de acuerdo con el artículo 26-2º de la Ley 7/1981, de 30 de Junio, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo, con la aprobación de la Presidencia del Gobierno, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 14 de Julio de 1987.

XEDATZEN DUT:

## LEHENENGO ATALBURUA

## ANTOLAKETA

*1. Artikulua.*– Kultura eta Turismo Saila, bere Sailburuaren goimailako zuzendaritzapean, indarrean dagoen arautegiak ematen dizkion egitekoetan jarduteko, honako organo hauetan egituratzen da:

I. ORGANO NAGUSIAK

1. Kultura Sailordetza.

1.1. Euskararen Suztapenerako Zuzendaritza

1.2. Kultura Sortu eta Hedatzeko Zuzendaritza

1.3. Historia eta Artezko Ondarearen Zuzendaritza.

2. Gazteria eta Kiroletarako Sailordetza

2.1. Gazteriaren eta Komunitate Ekintzetarako Zuzendaritza.

2.2. Kiroletarako Zuzendaritza

3. Turismo Sailordetza.

3.1. Turismo Zuzendaritza.

4. Zerbitzu Zuzendaritza.

5. Sailburuari Laguntzeko Kabinetea.

II. ORDEZKARITZAK:

1. Arabako Lurralde Ordezkaritza.

2. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

3. Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza.

## BIGARREN ATALBURUA

## SAILBURUARI BURUZKOA

*2. Artikulua.*– Ekainaren 30ko 7/1981 Legeko 20. eta 26. artikuluetan ezarritako aginteak eta, Martxoaren 11ko 27/1987 Dekretuz Sailari dagozkion egiteko eta iharduketa-alorren eremuan, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion guztiak erabiltzea da Kultura eta Turismo Sailburuari dagokiona.

*3. Artikulua.*– 1. Kultura eta Turismo Sailburuak, bere egitekoak betetzerakoan, laguntzako Kabinete baten lankidetza eta aholkua izango ditu eta horren arduradunak Zuzendari maila izango du:

2. Laguntzarako Kabineteko Zuzendariari, zera dagokio:

a) Gizarte Komunikabideen alorrean antolamendu juridikoak Kultura eta Turismo Sailari aitortzen dizkion aginteak betetzean Sailburuari laguntza ematea, E.I.T.B. Erakunde Publikoari eskuratutakoak salbuetsiz.

b) Politika kultural eraginkor eta koherente bat tajutzeko oinarri izan daitezkeen kultura izaerako gaiei buruzko azterketak eta txostenak burutzea.

c) Sailaren aginteko gaiei buruz, ekintzarako erizpide eta egitasmoak proposatzea Sailburuari.

d) Saileko Sailordetzekin lankidetza egitea, horien iharduketa-egitarauak gertatzean.

DISPONGO:

## CAPITULO PRIMERO

## ORGANIZACION

*Artículo 1.*– El Departamento de Cultura y Turismo, bajo la superior dirección de su titular, se estructura, para el ejercicio de las funciones que le atribuye la normativa vigente, en los siguientes órganos:

I. ORGANOS CENTRALES

1. Viceconsejería de Cultura.

1.1. Dirección de Promoción del Euskara

1.2. Dirección de Creación y Difusión Cultural

1.3. Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico.

2. Viceconsejería de Juventud y Deportes

2.1. Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

2.2. Dirección de Deportes.

3. Viceconsejería de Turismo.

3.1. Dirección de Turismo.

4. Dirección de Servicios.

5. Gabinete de Apoyo al Consejero.

II. ORGANOS PERIFERICOS:

1. Delegación Territorial de Alava.

2. Delegación Territorial de Guipúzcoa.

3. Delegación Territorial de Vizcaya.

## CAPITULO SEGUNDO

## DEL CONSEJERO TITULAR DEL DEPARTAMENTO

*Artículo 2.*– Corresponde al Consejero titular del Departamento de Cultura y Turismo el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 20 y 26 de la Ley 7/1981, de 30 de Junio, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponde al Departamento por Decreto 27/1987, de 11 de Marzo.

*Artículo 3.*– 1. En el desempeño de sus funciones, el Consejero de Cultura y Turismo contará con la asistencia y el asesoramiento de un Gabinete de apoyo, cuyo responsable tendr rango de Director:

2. Corresponde al Director del Gabinete de apoyo:

a) Prestar asistencia al Consejero en el ejercicio de las competencias que el ordenamiento jurídico reconoce al Departamento de Cultura y Turismo en materia de Medios de Comunicación Social, con excepción de las que estén atribuidas al Ente Público E.I.T.B.

b) Realizar estudios e informes sobre temas de naturaleza cultural que puedan servir de base para el diseño de una política cultural, eficaz y coherente.

c) Proponer al Consejero criterios y planes de actuación en relación con las materias de competencia del Departamento.

d) Cooperar con las Viceconsejerías del Departamento en la elaboración de sus respectivos programas de actuación.

e) Sailak beste Administrazio Publiko batzuekin izan ditzan izaera protokolarioko harremanak bideratzea.

f) Sailak prentsarekin, irratiarekin, telebistarekin eta, orohar, gizarte komunikabide guztiekin izaten dituen ohizko harremanak antolatzea.

g) Sailaren ekintza publikoak eta ofizialak antolatzea.

h) Sailari, artez edo zeharka, eragiten dioten edo eragin diezaioketen gertakariez, gertaerez eta berriez Sailburua informatzea.

i) Prentsako artxiboa.

j) Sailburuak, aurreko puntuetan adierazitako gaiei dagokienean, izenda diezazkion berarizko egitekoak eta betebeharrak.

3. Kabineteko Zuzendariak, beharrezkoak derizkion txosten, xehapen eta agiri guztiak eska diezazkieke Saileko Sailordetzei eta Zuzendaritza Zentruei, bereganaturik dituen egitekoak behar-bezala betetzeko.

4. Sailburuari laguntzeko Kabineteak, honako administrazio-unitateak izango ditu:

– Gizarte Komunikabideak.

– Irudia eta Informazioa.

– Plangintza eta Azterlanak.

*4. Artikulua.*– 1. Kultura eta Turismo Sailburua buru dela, Zuzendaritza Kontseilu bat eratuko da, honako egiteko hauek dituena:

a) Saileko Sailburuarekin lankidetza egitea, bertoko politika gertatzen.

b) Saileko Zuzendaritza Zentruen ihardunа koordinatzea, arlo horretan Sailburuordeei dagozkien egitekoen kaltetan gabe.

c) Sailarekin zerikusia duten garrantzi bereziko arazoak eztabaidatzea eta, hala behar izanez gero, horiek ebaztea.

2. Saileko Sailburuordeek eta Zuzendariek osatuk dute Zuzendaritza Kontseilua, Idazkari lana, horretarako izendatutako Teknikoak egingo duela.

3. Aztertu beharreko gaiaren garrantziak beharrezko egin dezanean, aurreko idazatian adierazitakoez besteko pertsonak parte har dezakete Kontseiluko bileretan, horien parte hartzea Sailburuak aldez aurre zilegitu dezanaren baldintzapean.

*5. Artikulua.*– Abenduaren 17ko 392/1985 Dekretuz sortutako Euskal Kulturaren Batzorde Nagusia, Kultura gaietan Eusko Jaurlaritzari aholku eta laguntza emateko aholku-organu bat denez, Kultura eta Turismo Sailari atxikirik egongo da.

## HIRUGARREN ATALBURUA

## SAILORDETZEI BURUZ

*6. Artikulua.*– Kultura eta Turismo Saileko Sailordetzei, zera dagokie:

1. Sailburuaren delegazioz Sailaren ordezkotza egitea.

2. Beren pean dauden Zuzendaritzei egitarauketa, laguntza, artezketa, kontrola eta koordinaketa ematea.

e) Canalizar las relaciones de carácter protocolario que el Departamento mantenga con otras Administraciones Públicas.

f) Concertar los contactos habituales del Departamento con la prensa, radio, televisión y, en general, todos los medios de comunicación social.

g) Organizar los actos públicos y oficiales del Departamento.

h) Informar al Consejero de todos aquellos acontecimientos, sucesos y noticias que afecten o puedan afectar al Departamento, de una manera directa o indirecta.

i) Archivo de Prensa.

j) Cuantas funciones y cometidos específicos le sean asignados por el Consejero, en relación con las materias expresadas en los puntos anteriores.

3. El Director del Gabinete de apoyo podrá recabar de las Viceconsejerías y Centros Directivos del Departamento, todos los informes, datos y documentos que considere necesarios para el adecuado cumplimiento de las funciones que tiene asignadas.

4. El Gabinete de apoyo al Consejero contará con las siguientes unidades administrativas:

– Medios de Comunicación Social.

– Imagen e información.

– Planificación y estudios.

*Artículo 4.*– 1. Presidido por el Consejero de Cultura y Turismo, se constituirá un Consejo de Dirección que tendrá por cometido:

a) Colaborar con el Consejero titular del Departamento en la elaboración de la política del mismo.

b) Coordinar la actuación de los Centros Directivos del Departamento, sin menoscabo de la función que corresponde desarrollar en tal sentido a los diferentes Viceconsejeros.

c) Deliberar y resolver, en su caso, sobre los asuntos de especial relevancia que afecten al Departamento.

2. El Consejo de Dirección se compondrá de los Viceconsejeros y Directores del Departamento, actuando como Secretario, el Técnico que sea designado a tal efecto.

3. Cuando la importancia del asunto a tratar lo requiera, a las sesiones del Consejo podrán asistir personas diferentes de las expresadas en el apartado anterior, siempre que su presencia sea previamente autorizada por el Consejero.

*Artículo 5.*– El Consejo General de la Cultura Vasca, creado por Decreto 392/1985, de 17 de Diciembre, como órgano consultivo de asesoramiento y asistencia al Gobierno Vasco en materia cultural, estará adscrito al Departamento de Cultura y Turismo.

## CAPITULO TERCERO

## DE LAS VICECONSEJERIAS

*Artículo 6.*– Corresponde a las Viceconsejerías del Departamento de Cultura y Turismo:

1. Representar al Departamento por Delegación del Consejero.

2. Programar, impulsar, dirigir, controlar y coordinar las Direcciones dependientes de las mismas.

3. Euren alorrekin zerikusia duten jokabideak proposatzea Sailburuari.

4. Sailburuari, gomendaturik dituen egitekoen arloan, laguntza teknikoa ematea.

5. Saileko lege-Politikak eska ditzan xedapen juridikoen proiektuak gertatzea eta Sailburuari aurkeztu, hala behar izanez gero, horrek onartu ditzan.

6. Sailordetzaren ihardunak programatzea.

7. Sailburuari, gomendaturik dauzkan egitekoen ibilera, kostua eta errendimenduen kontua aldizka ematea.

8. Errekurtsoak ebaztea, baimenak ematea eta, indarrean dauden arauekin bat etorriz, bidezkoak diren zigorrak ezartzea.

9. Zuzendaritza Zentruen eta horien menpe dauden gainontzeko Erakundeen funtzionamendua ikuskatzea eta kontrolatzea.

10. Indarrean dauden arauekin bat etorriz Saileko Sailburuak espreski delega diezazkionak eta antolamendu juridikoak berariz eskura diezazkionak edo, Jaurlaritzako Sailburuorde guztiei orokorki aitortzen zaizkielako, ohizkotzat har daitezkeenak.

Lehenengo sekzioa
Kultura Sailordetzari buruz

*7. Artikulua.–* 1. Kultura Sailordetzaren buru Sailburuorde bat egongo da, zeinak, Sailburuarekiko menpetasun zuzen eta hierarkikoz, 6. Artikuluan Sailburuordeei eskuratzen zaizkien egitekoez gain, eskumen konkretuak delegatzeari buruzko Urriaren 10eko 217/1983 Dekretuan daudenak ere beteko ditu.

2. Kulturako Sailburuordeak, Dekretu honek eskuratzen dizkion aginteak beteko ditu, honako ihardutze-alor hauei dagokienean:

A) Euskararen Suztapena.

B) Historia, Arte, Monumentu, Arkeologia eta Zientzia arloetako ondarea.

C) Artxiboak, Liburutegiak eta Museoak.

D) Kultura Hedapena eta Arte Plastikoen Suztapena.

E) Zinemagintza, Ikusentzutezko Baliabideak, Antzerkia, Musika eta Folklorea.

3. Kultura Sailordetzaren menpe, honako Zuzendaritza Zentru hauek egongo dira:

– Euskararen Suztapenerako Zuzendaritza.

– Historia-Artezko Ondarearen Zuzendaritza.

– Kultura Sortzeko eta Hedatzeko Zuzendaritza.

*8. Artikulua.–* Euskararen Suztapenerako Zuzendaritza.

1. Euskararen Suztapenerako Zuzendaritzari, honako egiteko hauek dagozkio:

a) Euskara, Kulturaren sortzaile eta eroale den legez, suztatzea.

b)Euskara Euskal Gizartean egokiro proiektatzera bideratutako ekintzak bultzatzea, euskalduntasuna zuzpertzeko behar daitezen neurriak jarriz.

3. Proponer al Consejero políticas de actuación relacionadas con sus áreas respectivas.

4. Prestar asistencia técnica al Consejero en el ámbito de las funciones que tienen encomendadas.

5. Elaborar los proyectos de disposiciones jurídicas que vengan exigidas por la Política legislativa del Departamento y someterlas, en su caso, a la aprobación del Consejero.

6. Programar las actividades de la Viceconsejería.

7. Dar cuenta periódicamente al titular del Departamento de la marcha, coste y rendimientos de las funciones que tiene encomendadas.

8. Resolver recursos; conceder autorizaciones e imponer las sanciones que procedan de acuerdo con la normativa vigente.

9. Inspeccionar y controlar el funcionamiento de los Centros Directivos y demás Organismos que dependen de ellas.

10. Las que expresamente le delegue el Consejero titular del Departamento de conformidad con la normativa vigente y todas aquéllas que les atribuya el ordenamiento jurídico de modo explícito o tengan el caracter de comunes por venir reconocidas de forma general a todos los Viceconsejeros del Gobierno.

Sección primera
De la Viceconsejería de Cultura

*Artículo 7.–* 1. Al frente de la Viceconsejería de Cultura existirá un Viceconsejero que, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero titular del Departamento, ejercerá, además de las funciones que el Artículo 6 del presente Decreto atribuye con carácter general a los Viceconsejeros, las atribuciones que le reconoce el Decreto 217/1983, de 10 de Octubre, sobre delegación de competencias concretas.

2. El Viceconsejero de Cultura ejercerá las competencias que le atribuye este Decreto, en relación con las siguientes áreas de actuación:

A) Promoción del Euskara.

B) Patrimonio Histórico, Artístico, Monumental, Arqueológico y Científico.

C) Archivos, bibliotecas y Museos.

D) Difusión Cultural y Promoción de las Artes Plásticas.

E) Cinematografía, Medios Audiovisuales, Teatro, Música y Folklore.

3. De la Viceconsejería de Cultura dependerán los siguientes Centros Directivos:

– Dirección de Promoción del Euskara.

– Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico.

– Dirección de Creación y Difusión Cultural.

*Artículo 8.–* Direccion de Promoción del Euskara.

1. Corresponde a la Dirección de Promoción del Euskara:

a) Promocionar el euskara como lengua generadora y transmisora de Cultura.

b) Apoyar actividades encaminadas a la adecuada proyección del euskara en la Sociedad Vasca, facilitando los medios necesarios para el reforzamiento de la identidad euskaldun.

c) Euskarazko aldizkariei eta euskaraz egindako literatur lanei urgazpena eta diru-laguntza ematea.

d) Pelikulen, bideoen eta, orohar, euskaraz egindako era guztietako ikustentzutezko baliaibideen hedapena bizkortzea.

e) Aurreko idazatietan izendatutakoekin zerikusirik izan dezan bizkortzeko, laguntza emateko eta bultzatzeko beste edozein ekintza.

2. Euskararen Suztapenerako Zuzendaritzak, Urtarrilaren 17ko 6/1983 Dekretuz sortutako Hizkuntza Politikaren Idazkaritzaren abiabideekin eta urtarrilaren 11ko 5/1982 Dekretuz sortutako Euskararako Aholku-Batzordearenekin bat eginez garatuko ditu gomendaturik dituen egitekoak.

*9. Artikulua.*– Historia-Artezko Ondarearen Zuzendaritza.

1. Historia-Artezko Ondarearen Zuzendaritzari, zera dagokio:

a) Ondare Historikoaren, mugikorra edo mugiezina izan, aldezpena, zaintza, eraberriketa, hedapena eta koordinaketa.

b) Ondare Historikoari eragin diezaioten ihardueraк kontrolatzea, baimentzea eta ikuskatzea, antolamendu juridikoak diñoena bete ez dezatenak zigortuz.

c) Euskal Herriko Artxiboen, Liburutegien eta Museoen Sarea sortzea, bizkortzea, hedatzea eta horien koordinaketa.

d) Arte plastikoak eta liburua bizkortzea eta hedatzea.

e) Indarrean dagoen antolamendu juridikoak aitortzen dizkion aginteen eremuan, Legezko Gordailuaren idazguen funtzionamendua eta Euskal Autonomia Elkarteko Lurralde eremuan kokatutako Sorpen Jabetzaren Erregistroko bulegoetan gauzatutako izapideak kontrolatzea eta ikuskatzea.

2. 1981.eko Ekainaren 22ko Dekretoz sortu eta Apirilaren 15eko 91/1986 Dekretoz birregituratutako Euskadiko Monumentu Ondarearen Batzorde Aholkularia, Historia-Arte Ondarearen Zuzendaritzari atxikitzen zaio; 1981.eko Uztailaren 30eko Dekretoz sortu eta Apirilaren 15eko 92/1986 Dekretoz birregituratutako Euskadiko Arkeologiako Batzorde Aholkularia ere bai; eta bai Bergarako Mikrofilm Zentrua eta Teknika Museoa ere.

3. Honako administrazio-unitate hauek egongo dira Historia-Arte Ondarearen Zuzendaritzaren pean:

– Historia, Arkitektura, Arkeologia eta Etnografia arloetako Ondarea.

– Museoak, Arte Plastikoak eta Erakusketak.

– Liburutegien eta Liburuen Antolaketa,, Urtarrilaren 11ko 90/1982 Dekretoak ezartzen dituen egiteko eta egitura organikoaz.

– Mikrofilm eta Artxibo Zerbitzua, Uztailaren 26ko 185/1982 Dekretoan zehazten diren egitekoez.

*10. Artikulua.*– Kultura Sortu eta Hedatzeko Zuzendaritza.

1. Kultura Sortu eta Hedatzeko Zuzendaritzari, zera dagokio:

c) Prestar asistencia y apoyo económico a las publicaciones periódicas en euskara y a las obras de creación literaria elaboradas en lengua vasca.

d) Fomentar la difusión de películas, videos, y en general, todo tipo de medios audiovisuales en euskara.

e) Cualquiera otra actividad de fomento, asistencia y apoyo que guarde relación con las consignadas en los apartados precedentes.

2. En el ejercicio de las funciones que tiene encomendadas, la Dirección de Promoción del Euskara, actuará de conformidad con las directrices emitidas por la Secretaría de Política lingüística, creada por Decreto 6/1983, de 17 de Enero, y del Consejo Asesor del Euskara, creado por Decreto 5/1982, de 11 de Enero.

*Artículo 9.*– Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico.

1. Corresponde a la Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico:

a) Regular la defensa, protección, restauración, difusión y coordinación del Patrimonio Histórico, mueble e inmueble.

b) Controlar, autorizar e inspeccionar las actuaciones que afecten al Patrimonio Histórico, sancionando todas aquellas que no se ajusten al ordenamiento jurídico...

c) Crear, fomentar, difundir y coordinar la Red de Archivos, Bibliotecas y Museos del País Vasco.

d) Fomentar y difundir las artes plásticas y el libro.

e) Controlar e inspeccionar, en el ámbito de las competencias que le vienen reconocidas por el Ordenamiento Jurídico vigente, el funcionamiento de las oficinas del Depósito Legal y los trámites sustanciados ante las dependencias del Registro de la Propiedad Intelectual ubicadas en el ámbito Territorial de la Comunidad Autónoma Vasca.

2. Se adscriben a la Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico la Junta Asesora del Patrimonio Monumental de Euskadi, creada por Decreto de 22 de Junio de 1981, y reestructurada por Decreto 91/1986, de 15 de Abril; la Junta Asesora de Arqueología de Euskadi, creada por Decreto de 30 de Julio de 1981 y reestructurada por Decreto 92/1986, de 15 de Abril; el Centro de Microfilm de Bergara y el Museo de la Técnica.

3. Dependerán de la Dirección de Patrimonio Histórico-Artístico, las siguientes unidades administrativas:

– Patrimonio Histórico, Arquitectónico, Arqueológico y Etnográfico.

– Museos, Artes Plásticas y Exposiciones.

– Organización Bibliotecaria y del Libro, con las funciones y estructura órganica determinadas en el Decreto 90/1982, de 11 de Enero.

– Servicio de Microfilm y Archivos, con las funciones que le atribuye en Decreto 185/1982, de 26 de Julio.

*Artículo 10.*– Dirección de Creación y Difusión Cultural.

1. Corresponde a la Dirección de Creación y Difusión Cultural:

a) Kulturaren eta artearen sorketa indartzea.

b) Arte eta kulturaren suztapena eta hedapena.

c) Musika eta antzerkiaren sorketa, zainketa eta hedaketa bultzatzea.

d) Arte eta kultura mailako elkarteak eta iniziatiba pribatuak indartzea.

e) Euskal zinemagintza suztatzea.

f) Euskal folklorea eta horrekin zerikusirik duten Jaialdiak, Norgehiagoketak eta Lehiaketak suztatzea.

g) Ikusentzutezko baliabideen produkzioa, banaketa, salketa eta horien erakusketa publikoen kontrola.

2. Honako administrazio-unitate hauek egongo dira Kultura Sortu eta Hedatzeko Zuzendaritzaren pean:

– Zinemagintza eta Ikusentzutezko Baliabideak.

– Musikaren eta Folklorearen Suztapena.

– Arte Dramatikoaren Zerbitzua, Martxoaren 21eko 49/1983 Dekretoak ezartzen dituen egiteko eta egitura organikoaz.

Bigarren Sekzioa
Gazteria eta Kirol Sailordetza

*11. Artikulua*.– 1. Gazteria eta Kirol Sailordetzaren buru, Sailburuorde bat izango da; honek, Sailburuaren artezko eta hierarkiazko agintepean, honako agiteko hauek izango dituela, hau da, Dekreto honetako 6. artikuluak orohar Sailburuordeei ematen dizkienaz aparte, Uztailaren 30eko 92/1981 Dekretoko 3. eta 7. artikuluek eta Apirilaren 19ko 99/1982 Dekretoko 7-6 artikuluak Sailburuari izendatzen dizkioten agiteak hain zuzen, Sailordetzari dagozkion arlo, ekintza eta eragiketen aginte-eremu barruan bakar-bakarrik.

2. Gazteria eta Kirol Sailburuordeak, Dekreto honek ematen dizkion aginteak burutuko ditu honako akintza-arlo hauei dagozkienetan:

a) Gazteria eta Komunitate-Garapena.

b) Kirol Politika.

3. Honako Zuzendaritza-Zentru hauek egongo dira Gazteria eta Kirol Sailordetzaren agintepean:

– Gazteria eta Komunitate Ekintzetarako Zuzendaritza.

– Kirol Zuzendaritza.

*12. Artikulua*.– Gazteria eta Komunitate Ekintzetarako Zuzendaritza.

1. Honako hauek dagozkio Gazteria eta Komunitate Ekintzetarako Zuzendaritzari:

a) Garapen komunitario, haur, gazte, hirugarren adineko, atsedenaldi eta jolas-politikarekiko gaiek Autonomia Elkartean izango dituzten arauen proiektuak lantzea eta bai Lurralde Historikoek horiek betetzen dituzten ala ez ikuskatzea ere.

b) Aurreko apartaduan aipatzen diren arloei dagozkien eta egokitzat jo ditzan ekintza zehatzei hasera ematea.

c) Atsedenalditarako Eskolak onartzea eta haurren eta gazteen atsedenalditarako monitore eta zuzendari-tituluak ematea, eta hori dena dagozkien Dekretoek esaten dutenaren arabera.

a) Fomentar la creación cultural y artística.

b) Promocionar y difundir el arte y la cultura.

c) Apoyar la creación, conservación y difusión musical y teatral.

d) Potenciar asociaciones e iniciativas particulares de carácter artístico y cultural.

e) Fomentar la cinematografía vasca...

f) Fomentar el folklore vasco y la realización de Festivales, Certámenes y Concursos relacionados con el mismo.

g) Controlar la producción, distribución, venta y exhibición pública de medios audiovisuales.

2. Dependerán de la Dirección de Creación y Difusión Cultural las siguientes unidades administrativas:

– Cine y Medios Audiovisuales.

– Promoción de Música y Folklore.

– Servicio de Arte Dramático con las funciones y estructura orgánica determinadas en el Decreto 49/1983 de 21 de Marzo.

Sección segunda
De la Viceconsejería de Juventud y Deportes

*Artículo 11*.– 1. Al frente de la Viceconsejería de Juventud y Deportes existirá un Viceconsejero que, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero Titular del Departamento, ejercerá, además de las funciones que el artículo 6º del presente Decreto atribuye con carácter general a los Viceconsejeros, las facultades que los artículos 3 y 7 del Decreto 92/1981, de 30 de Julio y el artículo 7-6º del Decreto 99/1982, de 19 de abril, atribuyen al Consejero del Departamento, en el ámbito exclusivo de las materias, actos y operaciones atinentes a la Viceconsejería.

2. El Viceconsejero de Juventud y Deportes, ejercerá las competencias que le atribuye este Decreto, en relación con las siguientes áreas de actuación:

a) Juventud y Desarrollo Comunitario.

b) Política Deportiva.

3. De la Viceconsejería de Juventud y Deportes, dependerán los siguientes Centros Directivos:

– Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

– Dirección de Deportes.

*Artículo 12*.– Dirección de Juventud y Acción Comunitaria.

1. Corresponde a la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria:

a) Elaborar los proyectos de las normas reglamentarias que regirán en la Comunidad Autónoma en materia de desarrollo comunitario, política infantil, juvenil, de la tercera edad, ocio y esparcimiento, así como inspeccionar su cumplimiento por parte de los Territorios Históricos.

b) Acometer las actuaciones concretas que estime pertinentes en relación con las materias expresadas en el apartado anterior.

c) Reconocer las Escuelas de Tiempo Libre y expedir títulos de monitor y director de tiempo libre infantil y juvenil, todo ello de acuerdo con lo dispuesto en los Decretos correspondientes.

d) Gizarte eta kultura suztapenerako egitasmoak landu eta jardunean jartzea.

e) Gazteriarentzako eta beste alor berezientzako diren egitarau bereziak antolatu eta suztatzea, sektore publikoan edo pribatuan gaztearen gizarteratzea bilatzen duten Sail, erakunde eta organismoekin elkartuz eta koordinatuz, bereziki gazteen enplegutaz eta drogarekiko menpetasunetaz arduratuz.

f) Gazte-Asoziazionismoa eta elkarte mailako entitateak bultzatzea, iniziatiba eta ekintzei laguntza emanez, teknika eta ekonomiazko laguntza eskainiz eta 1986.eko Urtarrilaren 15eko Aginduz sortutako zentsua etengabe egunera jarriz.

g) Bere aginte-alorrean, azterketa eta ikerketak egitea.

h) Atsedenalditarako irakasleen eta beren lana gazteriaren zerbitzu-zentruetan garatzen duen langilegoaren gaikuntza bultzatzea eta gizarte eta kulturaren suzpertzailearen izatemodu eta gaikuntza zehaztea.

i) Gazteriarentzako erresidentzi, alberge komunitario eta gazteriarentzako instalazioei eta gazte-turismo, gazte-txartel eta antzeko beste zerbitzu batzuri buruzko guztiaz arduratuz, gazteriarentzako zerbitzuak indartzea.

j) Gazteentzako Informazio eta Dokumentaziorako Zerbitzua sortzea eta koordinaketa-lana egitea.

k) Gazteriarentzako zerbitzuak sortu, suztatu eta koordinatzeko xedez, Instituzio eta Entitate Publiko eta Pribatuekin hitzarmen eta kontzertuak izenpetu daitezeneko proposamenak egitea.

l) Atsedenaldi-gaietan, Autonomia Elkarteari dagozkion aginte-eremu guztiak bere gain hartzea.

2. Administrazioaren eta Maiatzaren 27ko 6/1986 Legez sortutako Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren arteko harremanak artikulatuko dituen organoa izatea da Gazteriaren eta Komunitate-Ekintzetarako Zuzendaritzaren egitekoa.

3. Honako administrazio-unitate hauek egongo dira Gazteriaren eta Komunitate-Ekintzetarako Zuzendaritzaren pean:

– Gizarte eta kulturaren suztapen eta garapenerako Unitatea.

– Gazteen informazio eta dokumentaziorako Unitatea.

– Gazteen urgazpen eta komunitate-ekintzetarako Unitatea.

*13. Artikulua.*– Kirol Zuzendaritza.

1. Kirol Zuzendaritzari honako hauek dagozkio:

a) Oinarrizko kirolari buruzko legeei eta hauen araudi-garapeneri dagozkien arau-proiektuak lantzea.

b) Kirol Federakundeak eta Klubak eta horiei dagozkien Errejistroak eratuz, kirol asoziazionismoa suztatzea.

c) Federazioen eta gainontzeko Kirol Entitateen finantzaketan partaide izatea, proposamenaren gai izan diren helburuei egokitzen zaizkien ala ez kontrolatuz.

d) Goreneko mailako kirol-lehiaketak behar dituzten baliabideez hornitzea beren teknika-maila hobetu ahal izateko, eta bai goreneko mailako kirolak gauzatzen dituzten kirolarien egoera fisikoa emankortasunez zaintzea ere eta, hala behar izan dadinean, hobetzea.

d) Elaborar y ejecutar planes de promoción sociocultural.

e) Organizar y promocionar programas específicos dirigidos a la juventud y otros sectores singulares, en relación y coordinación con Departamentos, instituciones y organismos que, en el sector público o privado, incluyan funciones dirigidas a la integración social del joven, con especial atención al empleo juvenil y a las drogodependencias.

f) Impulsar el asociacionismo juvenil y las entidades de ámbito comunitario mediante el apoyo a iniciativas y actividades, la asistencia técnico-económica, y la actualización permanente del censo creado según Orden de 15 de Enero de 1986.

g) Realizar estudios e investigaciones en materias de su competencia.

h) Impulsar la formación de educadores de tiempo libre y del personal que desarrolle su labor en los centros de prestación de servicios a la juventud y definir el perfil y formación del animador socio-cultural.

i) Potenciar los servicios a la juventud, ocupándose de todo lo relativo a residencias y albergues comunitarios e instalaciones para la juventud, turismo juvenil, carnet joven, y otras prestaciones similares.

j) Establecer y coordinar el Servicio de Información y Documentación Juvenil.

k) Proponer la suscripción de convenios y conciertos con Instituciones y Entidades Públicas y Privadas para la creación, promoción y coordinación de servicios a la juventud.

l) Asumir todas las competencias que corresponden a la Comunidad Autónoma en materia de Tiempo Libre.

2. La Dirección de Juventud y Acción Comunitaria es el órgano llamado a articular las relaciones entre la Administración y el Consejo de la Juventud de Euskadi/Euskadiko Gazteriaren Kontseilua creado por la Ley 6/1.986, de 27 de Mayo.

3. Dependerán de la Dirección de Juventud y Acción Comunitaria, las unidades administrativas que a continuación se expresan:

– Promoción y desarrollo sociocultural.

– Información y documentación juvenil.

– Asistencia juvenil y acción comunitaria.

*Artículo 13.*– Dirección de Deportes.

1. Corresponde a la Dirección de Deportes:

a) Elaborar los proyectos normativos atinentes a la legislación deportiva básica y su desarrollo reglamentario.

b) Fomentar el asociacionismo deportivo mediante la constitución de Federaciones Deportivas y Clubs y, su correspondiente Registro.

c) Colaborar en la financiación de las Federaciones y demás Entidades Depor tivas, controlando la adecuación de las mismas a los fines propuestos.

d) Dotar de los medios necesarios al deporte de alta competición al objeto de elevar su nivel técnico, y ejercer un eficaz seguimiento sobre la condición física de los deportistas de elite fomentando, en su caso, la mejora de la misma.

e) Kirolaren praktika gehitzea, horretan agintea duten Foru Organoekin batera.

f) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari laguntzea, hezkuntza fisikoa eta kirol-praktika Euskal Herriko hezkuntza-sistema barruan integratzea lortu ahal izateko.

g) Kirol-teknikarien gaikuntza bultzatzea, horren gestioa eramatea eta hori arautzea, G.H.E.I. indartuz.

h) Kirolari guztien mediku-zainketarako eta osasunketa-kontrolerako sistema, Osasunketa eta Kontsumo Sailarekin batera, arautzea.

i) Kirol ekitaldiak antolatzea eta horietarako baimenak ematea, Euskal Federakundeei dagozkien aginteen kaltetan gabe.

j) Kirol instalazio sarearen egitamuketa Euskal Herrian egitea, sare hori behar bezala eta razionalki banatuko dela eta kirol-instalazioen eta material guztien erabilketarik hoberena eman dadin ahaleginduz.

k) Berbertako kirol-moetak indartzea eta horiei laguntza ematea.

l) Euskal kirolaren hedapena, bai estatu mailan eta bai nazioarte mailan ere, bultzatzea.

m) Kirol politikaren aholkularitzarako, kontsultarako eta arlo hori eztabaidatzeko goreneko mailako organoa sortzea eta bultzatzea.

n) Indarrean dauden legeek ematen dizkioten ikuskaritza eta zigor-aginteak gauzatzea.

o) Kirol-Diziplinarako Euskal Komitea, beharrezko dituen baliabideez hornitzea, dituen helburuak lor ditzan.

2. Uztailaren 22ko 170/1986 Dekretoz sortutako Gorputz Hezkuntzarako Euskal Institutoaz aparte, honako administrazio-unitate hauek egongo dira Kirol Zuzendaritzaren pean:

– Idazkaritza Teknikoa.

– Jardun Federatuetarako Unitatea.

– Teknika eta Kirol mailako Unitatea.

Hirugarren Sekzioa
Turismo Sailordetzaz

*14. Artikulua.*– 1. Sailburuorde bat izango da Turismo-Sailordetzako buru, Sailburuaren artezko eta hierarkiazko agintepean, 6. artikuluak orohar Sailburuordeei ematen dizkien aginteez aparte, honako aginte hauek izango dituela:

a) Eusko Turismo S.A. izeneko Elkarte Publikoaren emankortasuna eta jarduera zaintzea.

b) Uztailaren 30eko 92/1981 Dekretoko 3. eta 7. artikuluek eta Apirilaren 19ko 99/1982 Dekretoko 7.6 artikuluak Sailburuari ematen dizkioten aginteak, aginte-emanketa honek Turismo-Sailordetzari dagozkion arlo, ekintza eta eragiketak bakarrik hartzen dituela.

2. Turismo Zuzendaritza, Turismo Sailordetzaren agintepean egongo da artez eta hierarkikoki.

*15. Artikulua.*– Turismo Zuzendaritza.

Honako hauek dagozkio Turismo Zuzendariari:

a) Turismo Enpresa eta Jardunen arlorako ekintza-programak Sailburuordeari proposatzea eta onar daitezenak burutu daitezenaren artezko gainbegiraketa egitea.

e) Fomentar la práctica del deporte, en coordinación con los Organos Forales competentes.

f) Cooperar con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, para conseguir la integración de la educación física y de la práctica deportiva en el sistema educativo del País Vasco.

g) Impulsar, gestionar y regular la formación del personal técnico deportivo, potenciando el I.V.E.F.

h) Regular en coordinación con el Departamento de Sanidad y Consumo el sistema de atención médica y de control sanitario de todos los deportistas.

i) Organizar y autorizar manifestaciones deportivas, sin perjuicio de las competencias que correspondan a las Federaciones Vascas.

j) Planificar una red de instalaciones deportivas en el País Vasco, suficiente y racionalmente distribuida, procurando una utilización óptima de todas las instalaciones y material deportivo.

k) Impulsar y apoyar las modalidades deportivas autóctonas.

l) Estimular la difusión del deporte vasco en el ámbito estatal e internacional.

m) Crear e impulsar un órgano superior de asesoramiento, consulta y debate de la política deportiva.

n) Ejercer las funciones de inspección y de sanción que le vienen atribuidas por la legislación vigente.

o) Dotar al Comité Vasco de Disciplina Deportiva, de los medios necesarios para la consecución de sus fines.

2. De la Dirección de Deportes dependerá el Instituto Vasco de Educación Física creado por Decreto 170/1986, de 22 de Julio y, además, las siguientes unidades administrativas:

– Secretaría Técnica.

– Actividades Federadas.

– Unidad Técnico Deportiva.

Sección tercera
De la Viceconsejería de Turismo

*Artículo 14.*– 1. Al frente de la Viceconsejería de Turismo existirá un Viceconsejero que, bajo la dependencia directa y jerárquica del Consejero titular del Departamento, además de las funciones que con carácter general se atribuyen a los Viceconsejeros en el artículo 6, ejercerá las siguientes:

a) Vigilar la eficacia y el funcionamiento de la Sociedad Pública Eusko-Turismo, S.A...

b) Las facultades que los artículos 3 y 7 del Decreto 92/1981, de 30 de Julio, y el artículo 7, 6º del Decreto 99/1982, de 19 de Abril, atribuyen al Consejero del Departamento, refiriéndose esta atribución de competencias únicamente a materias, actos u operaciones concernientes a la Viceconsejería de Turismo.

2. De la Viceconsejería de Turismo dependerá directa y jerárquicamente la Dirección de Turismo.

*Artículo 15.*– Dirección de Turismo.

Corresponde al Director de Turismo:

a) Proponer al Viceconsejero los programas de actuación en materia de Empresas y Actividades Turísticas y la supervisión directa de la ejecución de los que se adopten.

b) Turismo suztapenerako programak Sailburuordeari proposatzea eta onar daitezenak burutu daitezenaren artezko gainbegiraketa egitea.

c) Indarrean dauden legeen arabera eta egoki izan dadinean, errekurtsoei ebazpena ematea.

d) Sailordetzari atxikita dauden Turismo Enpresa eta Jardunen Errejistroa eta Turismo Administrazio-Zerbitzuen zentsu eta artxiboak gainbegiratzea.

e) Turismo Bulegoen jarduerarean zuzendaritza egitea, onarpenaren gai izan diren suztapen-programen arabera.

f) Turismo Sailordetzaren pean dauden zerbitzuen administrazio-ekintzen antolaera eta zuzendaritza.

g) Bere agintepeko diren gai guztiak ezagutzea eta horiei ebazpena ematea, indarrean dauden legeen arabera .

LAUGARREN ATALBURUA

ZERBITZU ZUZENDARITZAZ

*16. Artikulua.–* 1. Sailburuaren artezko agintepean, Zerbitzu Zuzendari bat egongo da; honek, Sailaren eta Jaurlaritzako bateratutako gestiorako Zerbitzuen arteko harremanak bideratuko dituela eta, bereziki, Herriogasun eta Dirubideetarako Sailarekikoak eta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomia-Garapenerako Sailarekikoak hain zuzen.

2. Honako hauek dagozkio Zerbitzu Zuzendaritzari:

a) Saileko Aurrekontuen Aurreproiektua lantzea, Erakunde Autonomoek eta Sailari atxikitako Elkarteek dituzten Aurrekontu-Aurreproiektuekin bateratzen ahaleginduz.

b) Sailaren Aurrekontu eta gastuen gestioa eramatea, horiek kontrolatzea eta puntuz-puntuzko zaintza egitea.

c) Beka, Laguntza eta Dirulaguntzen biderapen eta izendapenekin lotura duten arazo guztien gestioa burutzea.

d) Sailarekin lotura duten gai guztiei buruzko erizpenak eta txosten juridikoak ematea.

e) Lege, Dekreto edo Agindu-Proiekto guztiak gainbegiratzea, Sailekoak ez diren Erakunde, Organo edo administrazio unitateetara bidali baino lehen.

f) Saileko agintarien erabakien aurka sartutako errekurtsoei dagozkien Erabaki-proposamenak gestionatzea eta lantzea.

g) Kultura-Fundazio Pribatuen eta Antzeko Erakundeen Errejistroa osatzen duten liburuak zaintzea eta Erakunde horiekiko protektoradutza egitea.

h) Herriogasun eta Dirubideetarako Saileko Ondare eta Kontratapen Zuzendaritzarekin lankide izatea, Sailari atxikitako ondasun eta eskubideekiko Ondare-Inbentarioa egiterakoan.

i) Saileko Kontratapen espedienteak, legebideetan jarri baino lehen, gainbegiratzea.

j) Saileko langilego eta soldata-arazo guztien gestioa burutzea, Jaurlaritzako agintedun organoek langilego arloari buruz emandako argibideen arabera.

b) Proponer al Viceconsejero los programas de promoción turística y la supervisión directa de la ejecucuón de los que se adopten.

c) Resolver recursos en los supuestos en que así proceda de acuerdo con la normativa vigente.

d) Supervisar el Registro de Empresas y Actividades Turísticas, censos y archivos de los Servicios Administrativos adscritos a la Viceconsejería de Turismo.

e) Dirigir el funcionamiento de las Oficinas de Turismo, de conformidad con los programas de promoción adoptados.

f) Organizar y dirigir las tareas administrativas de los servicios dependientes de la Viceconsejería de Turismo.

g) Conocer y resolver cuantos asuntos sean de su competencia en virtud de la normativa vigente.

CAPITULO CUARTO

DE LA DIRECCION DE SERVICIOS

*Artículo 16.–* 1. Bajo la directa dependencia del Consejero, existirá una Dirección de Servicios que encauzará las relaciones del Departamento con los Servicios de gestión unitaria del Gobierno y, especialmente, con los Departamentos de Hacienda y Finanzas y Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico.

2. Corresponde a la Dirección de Servicios.

a) Elaborar el Anteproyecto de Presupuestos del Departamento, procurando su coordinación con los Anteproyectos de presupuesto de los Organismos Autónomos y Sociedades adscritas al mismo.

b) Gestionar, controlar y ejercer un seguimiento puntual sobre el Presupuesto y el gasto del Departamento.

c) Gestionar todos los asuntos relacionados con la tramitación y adjudicación de Becas, Ayudas y Subvenciones.

d) Emitir dictámenes e informes jurídicos sobre temas relacionados con el Departamento.

e) Revisar todo Proyecto de Ley, Decreto u Orden, previa su remisión a Entes, Organos o unidades administrativas ajenos al Departamento.

f) Gestionar y elaborar las propuestas de Resolución correspondientes a los recursos interpuestos contra las decisiones de las autoridades del Departamento.

g) Llevar los libros que integran el Registro de Fundaciones Culturales Privadas y Entidades Análogas, así como ejercer el protectorado sobre las mismas.

h) Colaborar con la Dirección de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Finanzas en la confección de la parte del Inventario Patrimonial relativa a los bienes y derechos adscritos al Departamento.

i) Revisar los expedientes de Contratación del Departamento con carácter previo a su tramitación legal.

j) Gestionar todos los asuntos de personal y retribuciones del Departamento, de acuerdo con las directrices dictadas por los órganos competentes del Gobierno en materia de personal.

k) Saileko Sailburuordetzen eta Lurralde Ordezkaritzen antolaera, razionalizazio eta informatizazioarekiko proposamenak lantzea, Autonomia Administrazioko agintedun organoekin batera.

l) Saileko Zuzendaritza-Zentru guztiei euskararako itzulpen zerbitzua eskaintzea.

m) Saileko Ekonomia-Administrazio mailako tramitapen guztien kontrola eramatea eta bai aurreko apartaduetan aipatutakoekin lotura izan dezaketen edozein eratako egitekoekikoa ere.

2. Honako unitate hauek egongo dira Zerbitzu-Zuzendaritzaren agintepean:

– Aurrekontu Zerbitzua.

– Arazo Juridiko eta Fundazio-Zerbitzua.

– Langilegoaren Gestio-Zerbitzua.

BOSGARREN ATALBURUA

IZAIKI AUTONOMO ETA ELKARTE PUBLIKOEZ

*17. Artikulua.*– Honako hauek egongo dira Kultura eta Turismo Sailari atxikita:

– Maiatzaren 20ko 5/1982 Legez sortutako Euskal Irrati Telebistako Izaiki Publikoa (E.I.T.B.) eta Izaiki horren pean dauden Elkarte Publikoak.

– Azaroaren 25eko 29/1983 Legez sortutako Helduen Alfabetatze eta Birreuskalduntze eta Euskaltegien Arauketarako Erakundea.

– Otsailaren 15eko 62/1982 Dekretoz sortutako Euskadiko Orkestra, S.A.

– Abuztuaren 16ko 200/1983 Dekretoz sortutako Eusko Turismo, S.A.

SEIGARREN ATALBURUA

LURRALDE ORDEZKARITZEZ

*18. Artikulua.*– 1. Gaiaren arloaren arabera, organikoki Sailburuaren eta funtzionalki dagokion Sailburuordeen pean, Kultura eta Turismo-Ordezkaritza bat egongo da Lurralde Historiko bakoitzean, Kultura eta Turismoko Ordezkari bat izango dela horren buru eta Eusko Jaurlaritzak Dekretoz izendatuko duela Sailburuaren proposamenez.

INDARGABETZE XEDAPENA

Dekreto honek ezartzen duenaren kontrakoak izan daitezen maila bereko edo beheragoko erabaki guztiak indargabetuta gelditzen dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekreto hau, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitara dadin egunaren biharamunetik hasita, jarriko da indarrean.

Gasteiz, 1987.eko Uztailak 14.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

k) Elaborar propuestas de organización, racionalización e informatización de las Viceconsejerías del Departamento, y de sus Delegaciones Territoriales, en coordinación con los órganos competentes de la Administración Autonómica.

l) Prestar a todos los Centros Directivos del Departamento el servicio de traducción al euskara.

m) En general, el control de toda la tramitación Económico-administrativa del Departamento y cualquier otra función que guarde relación con las expresadas en los apartados anteriores.

2. Dependerán de la Dirección de Servicios las siguientes unidades:

– Servicio de Presupuestos.

– Servicio de Asuntos Jurídicos y Fundaciones.

– Servicio de Gestión de Personal.

CAPITULO QUINTO

DE LOS ENTES AUTONOMOS Y SOCIEDADES PUBLICAS

*Artículo 17.*– Estarán adscritos al Departamento de Cultura y Turismo:

– Ente Público Radio Televisión Vasca (E.I.T.B.) creado por Ley 5/1982, de 20 de Mayo, y las Sociedades Públicas dependientes de dicho Ente.

– Instituto de Alfabetización y Reeuskaldunización de Adultos y Regulación de los Euskaltegis, creado por Ley 29/1983, de 25 de Noviembre.

– Orquesta de Euskadi S.A., creada por Decreto 62/1982, de 15 de Febrero.

– Eusko Turismo S.A., creada por Decreto 200/1983, de 16 de Agosto.

CAPITULO SEXTO

DE LAS DELEGACIONES TERRITORIALES

*Artículo 18.*– 1. Dependiendo orgánicamente del Consejero titular del Departamento y funcionalmente de los respectivos Viceconsejeros, por razón de la materia de su competencia, en cada Territorio Histórico, existirá una Delegación de Cultura y Turismo a cuyo frente existirá un Delegado de Cultura y Turismo, que será nombrado por Decreto del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero del Departamento.

DISPOSICION DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo dispuesto en el presente Decreto.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de Julio de 1987.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.